

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BEHE-TENSIOKO LURRAZPIKO SARE ELEKTRIKOEN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0895		
Lanbide-arloa	ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
Lanbide-eremua	Instalazio elektrikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Behe-tentsioko lurrazpiko sare elektriko muntaketa eta mantentze-lanak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Behe-tentsioko lurrazpiko sare elektriko muntaketa	Iraupena	50
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa instalazio elektriko muntaketan eta mantentze-lanetan (zeharkakoa)		30

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0824_2 gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Behe-tentsioko banaketa elektriko lurrazpiko sareak osatzen dituzten zatiak identifikatzea, eta horien ezaugarri espezifikoak aztertzea.

EI1.1 Behe-tentsioko banaketa elektriko lurrazpiko sare baten dokumentu teknikoetatik abiatuz:

- Sarean eragina duten instalazioak identifikatzea eta gurutzatze eta hurbiltasunei buruzko araudia betetzen duten begiratzea.
- Zangak, zoladuraren arabera, zer seinaleztapen eta babes elektriko eta mekaniko dituen adieraztea.
- Sarearen garapenean araudia aplikatu den begiratzea.
- Instalazioko elementuen ezaugarriak aldatzeak edo instalazioaren zatiren baten funtzionamendu okerrak sarearen funtzionamenduan izango lituzkeen eraginei buruzko hipotesia egitea.

A2: Behe-tentsioko lurrazpiko banaketa-sare baten instalazioaren konponketa eta mantentze-lanak egitea, dokumentazio tekniko oinarri hartuta.

EI2.1 Instalazio baten mantentze-lanetako operazio batean:

- Egin beharreko urratsak adieraztea, aplikatu beharreko segurtasun-arauak kontuan hartuta.
- Erabili beharreko prozedurak.

EI2.2 Behe-tentsioko lurrazpiko linea bateko matxuren diagnostiko- eta lokalizazio-lanetan, eragiketa hauek egitea:

- Matxuraren sintomak interpretatzea, eta instalazioko elementuekin erlazionatzea.
- Matxuraren kausa posibleen hipotesia egitea, eta deskribatutako eraginaren eta haien kausen arteko erlazioa deskribatzea.
- Matxuraren kausa edo kausak hautemateko, esku-hartzeko plan bat egitea.

EI2.3 Behe-tentsioko lurrazpiko linea bateko matxuren diagnostiko- eta lokalizazio-lanetan, eragiketa hauek egitea:

- Egin behar diren proba, neurketa eta egiaztapenenak adieraztea, erabili behar diren prozedura, baliabide tekniko eta segurtasun-bitartekoak zehaztuz.
- Behe-tentsioko linea batean, matxurak diagnostikatzeko prozedura egitea, prozedura, erreminta eta babes- eta segurtasun-bitarteko egokiak erabiliz.
- Linea deskonektatu eta beste sare edo transformazio-zentro bati konektatzen zaiola simulatzea.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena prestatzea.

Edukiak

1. BTko lurrazpiko sarea osatzen duten atalen identifikazioa.

- Behe-tentsioko lurrazpiko sareetan aplikaturiko araudia egiaztatzea.
- Behe-tentsioko lurrazpiko sareetako banaketa-motak.
- Behe-tentsioko lurrazpiko sareetako eskemak.
- Banaketa-sarearen parametroen aldaketa, haren aldaketaren arabera.

2. BTko lurrazpiko sare elektriko mantentze-lanak eta konponketa.

- Diagnostikoa eta matxurak lokalizatzea. Sintomatologia, erabilitako teknikak eta funtsezko ezaugarriak.
- Arauak eta prozedurak. Konpainia hornitzailearen arau bereziak.

- Instalazioen mantentze-lanak egiteko erabilitako tresnak. Funtzioa, erabilera eta erabilitako motak.
- Mantentze-lan prediktiboak. Mantentze-lan prebentiboak. Mantentze-lan zuzentzaileak. BTko lurrazpiko linea baten mantentze-lanak.
Neurriak eta kontrolak.
- Termografia. Lur-konexioaren erresistentzia neurtzea, beste batzuen artean.
- Mantentze-lanen ikuskapenak. Araudiaren arabera ikuskapena.
- Behe-tentsioko lurrazpiko sareen konexioak eta deskonexioak. Baimenak. Aldez aurretik egin beharreko egiaztapenak eta jarduerak.
- Konpainia hornitzailearekiko erlazioa. Kontrol elektrikoaren bulegoa.
- Jardueraren eta emaitzen txostenak egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0894 gainditua izan behar du: Behe-tentsioko lurrazpiko sare elektrikoaren muntaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren muntaketa eta mantentze-lanak.